



M^a Mercedes Garmendia Bereciartu
Turismo zuzendaria
Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Andre hori,

Turismo Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan ekainaren 17an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Turismo Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Turismo Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen. Halere, argitu behar dugu martxoaren 3an euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak igo zirela Tramitaguneko espedientera, eta ekainaren 23an gaztelaniazko bertsio berri bat erantsi zela.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du turismo gaietan (10.36 artikulua).

Eskumen horren babesean onartu zen turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legea. Lege honek aldaketa bi jasan ditu, aldatzeko xedea zuen abenduaren 23ko 16/2008 Legeak, eta barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta

Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko apirilaren 23ko 7/2012 Legeak eragindakoak.

Halaber, beste arau ugari onartu dira turismo gaietan, hala nola: martxoaren 31ko 80/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismorako Aholku Kontseilua sortzekoa; abenduaren 24ko 317/1996 Dekretua, turismoaren erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak arautzekoa; uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua, kontsumoko erreklamazio-orriei eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzkoa; urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretua, Euskadiko Turismo Mahaia sortzekoa.

Orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez turismoa arautuko da, aipatutako martxoaren 16ko 6/1994 Legea ordeztuz.

Lege Aurreproiektuaren (ekainaren 23an gaztelaniazko bertsioa) I. tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (1-3 artikulua), II. tituluan turismo administrazioa arautzen da (4-6 artikulua), III. tituluan baliabide turistikoak (7-13 artikulua), IV. tituluan turismo erabiltzaileak (14-17 artikulua), V. tituluan turismo jarduera (18-71 artikulua), VI. tituluan turismo izaerako jarduerak egiten dituzten enpresak edo establezimenduak (72-73 artikulua), eta VII. tituluan turismo diziplina (74-109 artikulua). Azkenik zortzi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta hiru azken xedapen daude, hauetako batek martxoaren 16ko 6/1994 Legea gehi arau berriarekin talka egiten duten maila bereko edo apalagoko xedapenak indargabetuko dituela.

Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektu horretan badaude zenbait hizkuntza aipamen:

-Zerbitzu turistikoaren prezioak jorratzen dituen 26. artikulua 3. paragrafoan jasotzen denez (27.3 artikulua martxoaren 3ko euskarazko bertsioan), kontzeptuen arabera banakatu beharko dira prezio-tarifak eta benetan emandako edo kontratatutako zerbitzu turistikoaren fakturak, eta gutxienez gaztelaniaz eta euskaraz idatzita egon beharko dute.

-Ostatu establezimendu motak jorratzen dituen 38. artikulua 2. paragrafoaren arabera, ostatu establezimenduek espezializazioa izan dezakete, besteak beste hizkuntza izaerako eskarietara zuzentzen direnean. Martxoaren 3ko euskarazko bertsioan ez da hizkuntzarik aipatzen ordea.

-Turismo gidariak jorratzen dituen 64. artikulua 3. paragrafoari jarraiki, erregelamendu bidez ezarriko da Euskadiko bi hizkuntza ofizialak derrigorrez jakin beharra. Martxoaren 3ko euskarazko bertsioan ez dago horrelakorik ordea.

Egokiak dira hizkuntza aipamen horiek, eta bat datoz indarrean dagoen hizkuntza araudiarekin. Edozelan ere, Lege Aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, proposamen hauek egiten ditugu:

b.1- Aurreproiektuaren 14. artikuluan turismo erabiltzaileen eskubideak zerrendatzen dira, eta ez da hizkuntza eskubideei buruzko aipamenik egiten, artikulua hasieran

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legea aipatzen bada ere.

Uste dugu komeni dela beren beregi aipatzea, artikulua horretan, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen II. tituluaren VII. kapituluaren araututako hizkuntza eskubideak, turismo arloan ere babesa izan dezaten. Zentzu honetan, Turismoa Antolatzearen 16ko 6/1994 Legearen seigarren xedapen gehigarriak, arau hori aldatu zuen abenduaren 23ko 16/2008 Legearen hogeita bigarren artikulua emandako idazketan, hau jasotzen du: *“Turismo-erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei dagokienez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera bermatuko dira”*.

Beraz, Aurreproiektuaren 14. artikuluan idatz zati berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta informazioa nahi duten hizkuntza ofizialean jasotzekoa.

b.2- Kontuan izan behar dugu Aurreproiektuan jasotakoaren ondorioz pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak harremanak izango dituztela herri administrazioarekin, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua).

Beraz, Lege Aurreproiektuan xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege honen ondorioz herri administrazioarekin dituzten harremanetan, pertsona fisikoek eta juridikoen euskara zein gaztelania erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko ekainaren 30ean

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria